Erosi zuten iruen artean txitxarro bat eta sukaldari ari zan euskalduna. Eta besteak pensatzen zuten euskalduna tontua zala; ondo erreta repartitzeko ordua etorri zan eta onela euskaldunak repartitu zuan:

Frantzes toma el cabez,  
aleman toma el buztan,  
eta euskaldun tonto...  
toma erdiko tronko.

**OJANGUREN JOSE ANTONIO**

(389)

ELGETA'tik. — Egun batean, seme bat jun zan aitarengana esatera:

—Aita, aita! bigarren nabil eskolan.

Eta aitak:

—Zelan ori?

—Baiba Juantxo eta ni gaozelako bakarrik...

**OJAGUREN'dar PEDRO MARI, 9 urte**

(390)

ELGETA'tik. — Euskelduna, gallegoa ta andaluzatu batu ziran bai eta esan zeben ametsetan egiten dabenak jango dau tortilla bat; eta andaluzak ametseta egin zeban eguzkian zegola eta galleguak illargian ta euskaldunak esan zeban: Orrek urrin dare —ta berak jan zaban tortilla.

**PEDRO MARIA OJANGUREN, 10 urte**

## ELGOIBAR

(391)

ELGOIBAR'tik. — Gizon bati bere amaztea asarretu eta eskapatu zitzaion

bere jalotz etxera, eta etzekian atzera zelan engañatu etxera ekartzeko. Egin zion alegiña asko atzera ekartzeko, eta ezeban engañatu, eta gizajoa joan zan gizon jakintsu batera galdetzera zelan ekarriko zeban atzera. Eta orrek erantzun zion:

—Albadezu onian eta bestela guardiazibillekin.

—Baña eztakit erderarik arei entenditzen eragiteko.

—Ikasi, ba; orain eztago geixo.

(Ez dakigu norena dan).

(392)

ELGOIBAR'tik. — Nik esango dizuet erri ontan antxina baten gertatutako kontu edo ipui txiki bat.—Ondarrutan arrain-saltzalle bat zebillen kalia gora ta bera sardiñak saldu ezinikan.

—Sardiña fresku-freskua...! Amar (sentimo) amabikoa...! Amar sentimo dozena...!

Emakumetxo batek irtetzen de leiora ta dio: Nai al dezu errealian bi dozena?

—Ondarrutar saltzalleak dio: Bai; jextxi, jextxi!!

Saltzalleak amar zentimo eskatu, ta erosleak geiago eskeñi!!

Elgoibar'en gertatzeko naikoa dek...

**AGIRREGOMEZKORTA'tar KARMELE, 8 urte**

(393)

ELGOIBAR'tik. — Ni naiz Maria Isabel, beste askotan ere idatzi det zuentzat eta gaur ere ori egitera nijoa.

Gaur asiko esaten, aspaldi euki genduela konkurso bat, eta igaz nik irabazi nuana, aurtan ere eukiko degu eta ikasi egin bear degu ondo irtzeko.

Agur eta beste arte.

**AIZPURUA'tar MARIA ISABEL**

(394)

ELGOIBAR'tik. — Nere lagun maiteak: Irakasleak esan zigun moduan idatzi bear det idazki bat esaten naz oso ondo pasa ditudala gabonak. Baserrien egon naiz, gabonekin goratzen



degu Jesusen jaiotza, gau otzean da zela andik gero ikustera artzai batzuek joan ziran aingeru batek esan ta.

Illaren seian gogoraten dira nola erregeak joan ziran Jesus aurra ikustera. Jesus maite bear degu, berak ere gu maite gaitun moduan, guregaitik jaiotzean, sendi guziak batzen dira egun alkarrekin igaratzeko. Gaurkoagatik naikoa izango da. Agur, lagun maiteak, ta beste bat arte.

AIZPURUA'tar MARIA ISABEL

(395)

ELGOIBAR'tik. — Irakasleak **UMEEN DEIA**'ri idazteko esan zigun, esanaz noiz eman ziguten bakazioak eta noiz asi genun eskola.

Abenduaren 20'an eman ziguten bakazioak eta Ilbeltzaren 10'an asi genun eskola. Gabonak oso ondo pasa ditut bakaziotan, turroia jaten, eta kartetan eta ibiltzen: egun ederra pasa detet. Errege egunean erregalo asko artu nitun eta oso ondo pasa nuan.

AIZPURUA'tar MARIA ISABEL

(396)

ELGOIBAR'tik. — Idazki bat idaztera nijo, irakasleak esan zigun bezela. Ni 12 urtekoa naiz eta nere izena Maria Isabel da, Elgoibarren bizi naiz.

Nere ama ta aita ta anai San Lorentzo kallekoak dira. Euskal ikastolan nabil eta oso pozik joaten naiz. Ikastolan idazten ikasten da eta beste gauza asko. Oso pozik joaten naiz.

AIZPURUA'tar MARIA ISABEL

(397)

ELGOIBAR'tik. — Irakasleak esan zigun karta bat idazteko, ta asiko naiz esaten Euskerazko Ikastolan oso ondo nabil, ta asko ikasten dotela oso irakasle ona duketalako. Ostegunean idatzi ta «Xabierto» irakurri, ta astelenetan «**UMEEN DEIA**» irakurri ta gero kinar. Igez lenengo atera neban beste neska batekin, ta amar duro eman zizkigun. Bi anai-arreba gera, ta

biok euskerazko Ikastolara joaten gera oso pozik gaitera.

Bueno, agur ta urrengo arte.

AIZPURUA'tar M.<sup>a</sup> ISABEL, 11 urte

(398)

ELGOIBAR'tik. — Udaberria aldi onetan bai dala atsegingarria, mendi ostera bat egitea, batez ere goizaldian txori abestiak entzunaz, aize osasungarria artuaz, eusko mendietako edertasuna nabaituaz ez baida batere neke eta bai atsedean artu eta ordu ederra jateko gogo ederrakin etxeratu eta berriz beste osterebat egiteko len baño gogo obiakin.

AJURIA'tar MAITE

(399)

ELGOIBAR'tik. — Ume zan oso gaztea zortzi urtekoa, oetik jaikitzen zana goizeko seiretan; ta kalera etortzen esniekin, eta asti pixkat zaukanean ikastolara joaten zan. Ikastolan zegoan artean txistueta asten igarri gabe eta maistrak esaten zion ixiltzeko; baño berriz ere igarri gabe asten zan txistutan.

Egun batean esniekin etortzean marmit aundiak eukitzen zituan eta eskillan goraño ez eruaten arren bein eskillan utzi zituan bere marmitak. Baña baten bat etzan lo egon; esnia kendu ta ura bota ein zioten; eta bera konaturatu ondoren negarrez asi zan, ta etxera bildurak joan eta ama ikusi zuanean negarrari eman zion. Gero amak jakin ondoren esan ez negarrik egiteko, purgatorioan ordaindu bearko zutela berari arrapatutako esnea. Agur!

ALTUNA'tar M. AGUZKIÑE

(400)

ELGOIBAR'tik. — Atzo, Ikastetxeko txiki taldea Arrate'n izan zan eskursioan. Oso ondo igaro omen zuten. Bertako Irratia'tik ere itzezin zuten beren gurasoi agur bero bana bialduaz, eta abestu ere bai euskeraz. Madrid'en



izanda baño pozikago eta goianteago etorri ziran. Bai, orixe!

Agur bero bat euskaldun guztioi.

**ALTUNA'tar MIREN BAKARNE'K**

(401)

ELGOIBAR'tik. — Aspaldin ezdet idatzi eta gaur asten naiz esaten zelan ebilli naizen jai onetan. Illan ogei ta batian, artu genituen bakazioak illan zortzi arte. Jai onenk urteko oneneak dira, ba jai onetan jaio zan Jesus. Illan seian izan zan Errege eguna eta bostgarrenean egin zan kabalgatia, Erregiak atera ziran San Pedroko karreterian, eta gero jua ziran Ayuntamientora, ta an eman zebeñ regaluak, gero jua ziran elizara Jesus aurra gurtutzeraz; andik urten zebeñian kalez kale gozokiak botatzen jua ziran.

**AMAYA**

(402)

ELGOIBAR'tik. — Bein batean gizon bat ba zan mezatara juaten etzana. Egun batean bere nagusiak esan zion: —Gaur mezetara joan bear dezu. Bestela nik ez dizut lana emango.

—Nik ez dakit nun dagon eliza—, erantzun zion besteak.

—Zu joan zaitez jende dana joatzen dan lekura.

Juan zan ba elizara nagusiak esan zion bezela.

Elizan boda bat zegon. Eta Meza bukatu zanian bazkaltzera jua ziran eta bera ere bai. Mutillari esaten zion «parte ori neskaren partekoa da» eta neskari bestela esaten zion...

Bazkaria amaitu zanean, etxera jun zan. Nagusiak galdetu zion: —Zer moduz?

—Oso ondo—erantzun zion besteak.

Gizona zai zegon berriz jaia noiz etorriko zan. Jaia etorri zanean jun zan elizara. Jende denak leku batean sartzen zuten eskua. Eta bera ere jun zan, eta sartu zeban, eta esan zeban:

—A!, ze pena gaur!, salda bakarrik lagadie, berandu etorri naiz ta.

Joan zan etxera, eta nagusiak galdetu zion:

—Gaur zer moduz?

—Gaur gaizki —erantzun zion bereala.

—Zer ba?

—Salsa bakarrik lagadielako.

**AMAYA**

(403)

ELGOIBAR'tik. — Aspaldin ez det ezer idatzi, eta gaur asten naiz esaten zela ebilli naizen bakazioeta. Uda oso ona egin du playara joateko. Dagonillaren 23 asi ziran S. Bartolomeko jayak. Jende asko egon zan eta barraka asko egon ziran, eta merkatu egunian egon ziran dantzako premioak, eta lenengoa atera zuten Martireskoak oso ondo dantza egin zutelako. Urrillaren lenengoa asi giñan ikastolan pena aundia-kin bakazioak amaitu zirelako; baño oin oso pozik joaten naiz.

Agur, ta urrengo arte.

**AMAYA**

(404)

ELGOIBAR'tik. — Nere lagun maitea: Gaur esan bear dizuet ikastola berrian asi gerala, ta oso pozik nabil; baño poz aundia daukat kursua amaitzen daukalako, eskursioa eginbear degulako guk nai degun lekura. Nere eskuan egoten bazan, jungo giñen Donosti aldera. Igez jun giñen Fuenterrabira; egualdi txarra egin zeban, baño gu oso ondo ibillen giñen. Nik asko erreztatuko dot egualdi ona egiteko.

Agur urrengo arte.

**AMAYA**

(405)

ELGOIBAR'tik. — Nere aita da ama Ermua'n jayoak dia, da ango izketa egiten dabe, da orregatik eitxen degu nik eta nere anayak ango izketa da emengua. Guk dendia dakagu, da sarritan eskolatik etortzen geranian, batian karamelotik ta bestean pasteletik edo bonboietatik aman isillian degu. Da



bazkaltzeko orduan izaten dia kontuak: au ez det nai, da bestea ez det nai. Baña tajadatik isillik jaten degu. Ni nabil Milagrosian eskolan, da pozik juten naiz ikastera. Da nere anaya preilletan, da oso pozik juten da ere.

AMESTI'tar ELISABETE, 9 urte

(406)

ELGOIBAR'tik. — Biar da Arrate'ko eguna, ta oso pozik nago. Ba usten det Arrate'ra noyala ikusteko Arrate'ko Ama Birjiña. Badaukat gogua, ba orain dala iru urte ez naizela joan. Nere anaya orain dala denpora asko ez tala joan. Joan zan praileekin eta mutikoe-ekin. Ni ere joan nintzan monjekin, ta aldapan bera jauzi nintzan, baña ez neban miñik artu.

AMESTI ELISABET

(407)

ELGOIBAR'tik. — Nere erria oso polita da bere eliza ederrarekin. Baña oso gutxi euskera egiten da. Gure etxean euskera egiten degu; bestela aítak da amak laister esaten dabe: Nun gaude?

Baña kalean oso gutxi entzuten degu; lagun gutxi dago euskera dakiena.

AMESTI ELISABETE, 11 urte

(408)

ELGOIBAR'tik. — Nere katua txarra da, eta dendara juten da zeozer arrapatzera; eta aítak esaten dio: Nora zoaz? —eta etorri egiten da. Igandean zortzi egun igaro dira, nik txori polit bat billatu nuan kalean: kanariua izan bear du. Asi da pizkat kantatzen, da oso pozik gaude etxeko guztiok berari begira; da nik ekartzen diaraz karduak, da ederki jaten ditu, da gañera alpiste da ura sarri ematen dioguz.

AMESTI'tar IÑAKI, 7 urte

(409)

ELGOIBAR'tik. — Juan dan igandean egon naiz ostikalariak ikusten: eta

ederki jokatu zuten; erbestekueri irabazi zioten 3-0.

Orain datorren igandean jokutzen dabe Eibarren beste berriz: irabaziko ba lebe oni, bai poza!

IÑAKI AMESTI, 7 urte

(410)

ELGOIBAR'tik. — Ipuña. — Amezketarrena izengaitia «elbiak», da Alegitarrena berriz «txintxarriak». Bein batean Fernando bai omen zijoan Alegi'ko kalean bera osto batzuek zituan txotx bat eskuan zuala.

Alegitar batek galdetu zion:

—Fernando, eskuan daramazun txotx ori «elbiak» izutzeko al dezu?

—Ez, ez «txintxarrien» miak ixiltzeko det.

AMESTI'tar IÑAKI

(411)

ELGOIBAR'tik. — Gure EUSKERA ez dala jasotzen esaten dute askok. Zeñiek dauka orren errua? Guk euskaldunok; beste ifiork ez. Nik ikusten ditut asko esan zerbait euskeraz, ta atzera erdi erderaz erantzun. Alde egingo lioteke gogo oiek, neri amak egiten didana egingo balio teke. Ara nere zigorra zer dan. Jaten ari geranean, itz bakoitzeko peseta bat gutxitzen digu jairako daukagun saritik, ta bost peseta izaten da guzia. Ta bost aldiz itzegin ezkerok, igandean bietza txupatu bear.

Ez dezagula aztu gure Euskera ta bera beti maitatu bear degula.

ARAKISTAIN ELIZABET

(412)

ELGOIBAR'tik. — Euskaldun maiteak: Astera noa. Ejerzizio auek egiten ditugunak 12 urtetik 16 urtera ditugu. Apaiz batek ematen dizkigu eta oso ederki egiten du; ni beintzat oso gustora nago.

Oso pozik nago Aste Santua etortzeko. Emen oso prozesioa politak egin



dira eta guk jai bat aukitzen degu eskolan. Agur.

**ARANBURU'tar MIREN EDURNE**

(413)

ELGOIBAR'tik. — Nere euskaldun maiteak: Ikastolia orain asi da; orain arte bakaziñuekin egon gera. Oso ondo pasau det bakazioa amaituta piskat geroago konkurso bat euki giñuan. Iru neska joan giñan ikastolatik. Erri askokoak etorri ziran eta lenengo Ondarroako erriak atera zaben, eta lenena Maria Isabel Aizpurua Elgoibarkoa, eta ni beste lauekin batera atera nuan; baña dirua daneri bardin eman ziguten, 237'50 pesetak bakoitzari.

Uda oso ona egin du, playera eta mendira joateko modukoa, baña uran falta asko egon da etxietan, orixe txarra. Erderazko ikastola asi zaigu; an be bi illabeteko euki ditut. Oso ondo pasau det.

**MIREN EDURNE ARANBURU**

(414)

ELGOIBAR'tik. — Euskaldun maiteak: Orintxe asten naiz idazten. Orain bakazyoak euki duz, eta zer edo zer asten naiz idazten. Astelenetan eta eguenetan ikastolara juaten gera. Asteleanean jokuak egiten duz, eta eguenetan ikastolara zazpiterdian juaten gera, eta beatzi laurden gutxigoetan urtetzen gera. Oso pozik nabill, eta gañera asko erakusten dezku irakasleak; lagun asko gabiltz, batzuek martitzenetan eta larunbatean eukitzen dabe ikastolia, baña ayek euskeraz ondo ezdakinak dira.—Agur danei.

**ARANBURU'tar MIREN EDURNE**

(415)

ELGOIBAR'tik. — Aspaldian ezdot idatzi eta orain astera ni joa esanaz zelan pasatu ditutan Gabonak. Oso ondo pasau det, Natividad egunean nere baserrian egon nintzan egun bat pasatzen. Errege eguna pasau da, emen gauza pollitak egin ziran. Bezperako

egunian aiuntamentuan Erregeak jenden aurrean egon ziren balkoian eta an ume batzuei erregaluak eman zizkaten Erregeak.

Angoa egindakoan elizara joan ziran eta andik urtendakoan kalia gora bera joan ziran karameluak botatzen. Errege egunian neri gauz asko eman dizkidate eta gero egun au amaitutakoan jai danak amaitu dira eta gero amaikarrian ikastola asi zan. Beste bat urte.

**ARANBURU'tar EDURNE**

(416)

ELGOIBAR'tik. — Ni izatez basarritarra naiz, eta euskeraz itzegiten obeto dakit erderaz baño.

Goian esan detan bezela, ni basarritarra naiz; baño geyago gustatzen zait kalea, eta orregatik etortzen naiz kalera goizean goiz ume koskor bi zaintzera. Eta ume ayekin ere euskeraz itz egiten bear izaten det, zergatik etxeko-andreak esaten dit nik euskeraz erakusteko, eta gero ikasito dutela erderaz; baño lenbizi gure izkuntza, eta gero al dan guzia. Urrangoan ipui geyago esateko asmoarekin agurtzen zaituzte.

**ARIZNABARRETA M. SORKUDE, 11 urte**

(417)

ELGOIBAR'tik. — Ni naiz Juantxu, Pedro Arrieta'tarren anaia: zazpi urte daukaz; eta barkatu, ondo idazten eztaikit.

Otsaillaren 27'an, zazpi eta amarretan egon zan Elgoibarren «Euskal-Antzerkia», baite ere Eibarren «Amaya Antzerkian» beste egun baten. «Aitona eta Billoba» deritzen zaion.

Garitaonandia'tar Victor apaizak idatzia. Nitzan ni Sabintxo biloba. Aurrenez estutu nitzan ainbeste lagun ikusita: gero gogoraturik zeruko Amatzorekin eskatu nion, eta berak lagundurik, oso ederki egon nuela, eta txalotu zien asko. Zenbat zorion! Pablito Calbo baño obeto egin nuela.



Agur bero bat Umien zuzendari eta nere laguntxoari.

ARRIETA'tar JUAN

(418)

ELGOIBAR'tik. — Neri aitak kontatua. — Magdalena'tar Mariaren eguna ospatzen degu uztaillaren 22'n. Egun orren bosperea zan, orain 28 urte in-guru izango dira:

Mala aldean —orain Bar Txarriduna deitzen zaion lekuan bertan— zan abereak perratu egiten zuten leku edo perratokia.

Egun orretan geuden, egunero bezela, mutil koxkor batzuk perratoki orren leio zar baten egiten zuan kozkan jarrita. Geuden ipuñ koxkorak alkarri esaten geundela, perratotiko orma zarretik arri aundi bat erori zan lurrera. Ura ikusirik, aldegin gendun mutil koxkor guztiok saltoka ingurutik, eta len orma aundia zan lekuan arkitu zan arri pilla aundia. Ura ikusita, mutil koxkor guztieri bere aingeru gordetzalleak eskutxoia eman eta kendu zituñala arri artean azpiratuta gelditu aurretik.

ARRIETA'tar MIREN LUZIE, 8 urte

(419)

ELGOIBAR'tik. — Urrillaren 4'an izen da Elgoibarren jai poli-polita. Ogetamar Txistulari etorri ziran gure aitonak eta amonak maiteak goratxera.

Amarretan Meza oso ederra izen zan. Donostitik etorri ziran abestutze-ra; baita erriko neskak ere oso ederki abestu zuten.

Gero, Meza ondoren, zenbat parre Pello Kirtenek esandako gauzak entzun da. Gero abestu zuten donostia-kuak eta txistulariak eta Elgoibar'ko Musikako taldeak. An egon ziran ixilixilik eserita gure aitonak eta amonak maiteak.

Arratxaldeko bostetan pelota jokua, eta seiretan aureskua. Gu giñan txikitxuenak: nere anaiak zazpi urte, nik bederatzi, eta atera genduan aurrezkua, bick batera. Asko txalotu ziguten. Gero artu genduan saria eta pozik etorri

giñan etxera, aitatzko eta amatxo eta arrebakin igarota egun alaia. Agur be-ro-beroa umien zuzendariari, baita la-guntxoari.

ARRIETA PEDRO

(420)

ELGOIBAR. — Juan diran Gabon jai egunetan esan zigun gure amatxok gertatu au:

Ilbeltzaren arratsaldeko laurak.

—Au da gosea! —dio aizta batek besteari.

—Ezer ere esnea badago; baño... biar falta gosaltzeko, eta or egosten su ondoan. Baño oain bezelako sua ez.

(—Tan... tan!) —atean.

Juan da aretako aizta bat; eta gizon zar bat eta gorra: gizajoa itzak dar dar:

—Mesedez, zeozertxo?

Biok bata besteari begiratuz:

—Zer emango diogu gizajoiari?... Es-ne pizkat? Biar gitxitzuago artuko degu.

Berotuta eman die, eta pozik jun zan gizontzu ura, eskerrak emanda.

Andik pizka batera, esan zion aizta batek besteri: Porruak kartera nua.

Eta jun zan. Eta ortuan naranjak artu zitun. Eta bereak etorri zan antxintxika.

—Guazen! —esan zion bere aitzari.

—Ni ez nua; zu jolasian ai zera.

—Baña jua zan.

Eta ura poza! Zortzi amabiko naranja ederra onenetakoak zauden bakan-duta gure ortuan. Nola leike au?

Etorri ziran aitona, amona, aita, ama, danak: orren poza! Danak naranjak jan. Urrengo egunean jakin zebeñ kamion batek naranja beteta zizela ortuko pa-retan jo, eta salto egin zuela, eta naranjak laga. Eta esne pizkaten orde-z, gure Jaungoikoak bi arratsaldeko ba-ño geyagoko jana eman zigun, orduan diruakin ere ezin erosi zaikien.

Agur bero bat danona. Otoitz egin deigun Arantzazu'ko Amatrixori Quilpe (Chileko) Gonzalez Elorriaga Miren Alatzane'ri osatu dein.

ARRIETA'tar Pedro, 9 urte



(421)

ELGOIBAR. — Nik idastera nijuan kontutxo au: ipuia dirudi, baño gertatua omen da.—«Karakate» baserriko etxeoandreak goiz baten egin omen zuen pertza bete morokil gosaltzeko; eta laisterrago otzituzearren ipiñi zuen leiuan. Ta katuak xirri egin dio, eta erori da bueltaka-bueltaka mendi aldapan bera, ta Andikanoko erreka ibaira sartu omen zan. Etxeko andria leiotik begira nun geldituko bere morokil pertza; ta ikusi duenian ibaira ajuasi dala, diño: Oztituko itzan oaininxe egundoko onduen... ¡jala jaiña!

Barau egin bearko diagu gaur. Agur.

ARRILLAGA'tar TERESA, 9 urte

(422)

ELGOIBAR. — Adiskide bati:

Nere adiskide maite Belen: Juan dan abenduan nere ikastolako amak lagun-duta idatzi nuen eskutitz polit bat esanaz nintzala 8 urteko neskato matrail gorri bat, eta Jesus Aurtxoarentzat seaska antolatzen ari giñala eta abar. Eta esan didate ez nazutela ezagutu nere izen, abizen euskaldunekin, ezbaiddidate bialdu ordañik. Orregatik orainguan idazten dizut zuri Belentxori, eta esan zure aitaxori ez aldan oroitzen bere auzotarrez, ba nere ama zure aitaren auzotarra izan da, eta nere aita eta zurea gudaritan alkarrekin egonak dira.

Eskutitz auen bitartez lagun egingo gera, eta esan, mesedez, zure aitari nere gurasoak ere nai dutela orritxo oiek iragurtzea. Oraingo orritxoa nik oso gutxi ezagutzen nuan; sendi batek eman zidan irakurtzeko, eta baita ere nere ikastetxeko amak esan dit lruñe'ko orritxoak pozik artuko lituzkela, ba bera da gure erritar bat, eta euskalzalea gañera, eta nik asko maite det.—Beti zure lagun.

ARTETXE ta BADIOLA'tar M.' ESKERNE, 8 urte

(423)

ELGOIBAR'tik. — Ni naiz mutiko txiki bat ikastolara joaten naizena. Ta

joaten naiz nere aitaxori poz ematearren eta ikastearren ere bai. Nere aita-txok esaten dik, euskal-ikastolan billatzeko neretzako laguna, eta oituzteko berarekin euskeraz egiten.

Nik nere lagunekin beti euskeraz egiten det, eta ikastolan ere ba ditut bi lagun oso maite ditutenak: batek Txomin du izena, ta besteak lñaki. Txomin ni baño zarragoa da, baño oso ondo konpotzen naiz berakin. Gogoratzen naiz egin genduan eskursio baten, alkarrekin ibilli giñan beti, eta arrezkerro oso berarekin ibilli zale naiz.

Sarritan esaten dit nere aitak esateko zeintzuek diran ikastolara joaten diranak, eta ni ez naiz gogoratzen dandekin. Baña zenbat diran gutxi gorabera nai nuke esan. Ni joaten naiz astelenean eta euenean: Gurekin joaten diranak dira irurogei bat Jesus'ekin, eta ogetamabost Felix'ekin. Eta gañera beste talde bat ere badabil, berrogetamar ingurukoa, Miren'ekin eta Lourdes'ekin. Guk, irurogeik, ondo dakigu itzegiten: eta beste taldekoak itz ere oso gutxi, baño errezatzen ondo, kantatzen ere poliki. Il onen azken aldera beste eskursio txiki bat egin bear degu Madarixara, ta egualdi ona bada, ni ere joatekotan nago. Baño orretarako ikastola asi bear da, ta uste dot datorren astean asiko dala. Ni pozik nago berriz ere nere aitari poz emateko, eta nik esaten diotet beste mutikoeri, joateko euskal ikastolara, beren aita-amari poz emateko ta Euskeraz ikasteko.

AXIER'ek

(424)

ELGOIBAR'tik. — Emen, Elgoiba'ren gertatua da ipuin au, ta aitak neri kontatua.

Elgoibar'ko auzo bateko gizon bat baldidu zuten elgoibarko baserri batera, bi euneko pipar landara billa. Gizon onek eraman zituan esandako piparrok, ta bokratu ere bai; baño denboria jun eta denboria etorri piparrok azi ziran, ta zer gertatuko ta danak miak



izan. Gero etxeko-andra au Elgoibar'era etorri zan batez esaten dio baserritarari:

—¿Zer pipar bidaldu ziazuzen zuk neri?

—¿Zer ba?—galdetzen dau baserritarak.

—¿Zer ba? aurreragoko baten bidaldu nuan gizon bat zuenera pipar landara billa ta danak miñak bidaldu?

—a... n... ba! —esaten du baserritarak; —ointxe juazi gure pipar lapurra. Garai artan lapurtu zituzten gau batean gurean piparrak. Zein izan zan bidaldu zenuten gizon ori?

Nere aitak esaten du, berak etziola ondo entzun zein zan gizona.

**AXIER'ek**

(425)

**ELGOIBAR.** — Nik ere euskeraz ikasi nai det. Ortueta oski-gillearen alabatxoa naiz. Elgoibar erri onetako gazteak oso dantzariak dira, ta zapata asko urratzen dute; ta ori oso ondo etortzen da nere aitaxorentzat txanpona ugari ateratzeko. Saltokia beti jendez bete-bete eginda dago. Txomin Muriillo oski-gilleak ere badabilki naikoa lan pipa kirtena baño txorrotxago diran andereñoen takoi luzeak antolatu ezinikan. Penitenziaz aginduko balitzaie, ibilliko ote litzakez siri-luze orren gafiñan? Nik ez uste; baño moda zan ba, ta modari jarraitu egin bear... a gaixoak...!

**AZKARRETA'tar BEGOÑA, 9 urte**

(426)

**ELGOIBAR.** — Lengo igande baten Elgoibar'en izan zan «Ciclo-cross» eder bat. Nik beintzat barre egin nuan benetan. Ni egon nintzan tokian asko erortzen ziran, ta, jakifia, barre egin bear. Datorren igandean San Anton eguna degu. Orduan ere ba degu zer-bait ikusteko. Korrikalariak izango ditugula diote, egualdi ona egiten badu: prozesio ederra ere izango degu. Beti zuen lagun.

**AZPIAZU ta LASA'tar KEPA, 9 urte**

(427)

**ELGOIBAR'tik.** — Gaur da lenengo aldiz euskeraz idazten detala, eta orregatik badakit ondo egingo ez dedala; baño gogoia det ikasteko, eta urrengoan obeto egiteko asmoa det. Aurreskua ere ikasten ari naiz.

Agur, eta urrengo arte beti zuen lagun.

**PEDRO MARI AZPIAZU, 8 urtekua**

(428)

**ELGOIBAR'tik.** — Gaur da Jabier'ko Franzisko Santuaren eguna, eta biar lenengo ostirala; eta orregatik gaur konpesatzen izan naiz biar Jauna artzeko nere eskolako lagunekin batian.

Gaur maixuak esan digu oso ipuin polita: ezin dizuet esan, eta ikasten dotenian esango dizuet.

Badator Jesus jaio zan eguna: oso pozik nago turroi piskat jateko. Agur, urrengo arte. — Beti zuen lagun,

**AZPIAZU ta LASA'tar, PEDRO MARI, 8 urte**

(429)

**ELGOIBAR'tik.**—Neuk ere nere anaitxuak bezela euskeraz idazten asi naiz. Gai ontan gejenak bezela oso atzeria nago; baño asmo sendoa det gure izkuntza ederrean idazten ikasteko, baita ere etxean eta kalean euskeraz itz egiteko.

Urrengoan luzeago idatziko det. Agur danori, ta beste bat arte. Zuen lagun.

**AZPIAZU'tar XABIER, 13 urte**

(430)

**ELGOIBAR.** — Otzaillaren asieran izan nintzan Lasarte'n laisterka bat ikusten; da izan ziran iru txapelketa, Seniors eta Internazionalak. Lenenguan irabazi zaban Rubio eibartarra, bigarren txapelketan Jose M.<sup>o</sup> Alday, Ulia'ko ekipuaren Gimnasta; eta azkenean, lenengoa Northon inglesa, bigarren Jurek txekua, irugarren Woalti txekua, eta laugarren Norris inglesa. Lau onek oso txapelketa ederra egin zuten, eta



neretako txapelketa onena in zabena da bigarrena, Jurek txekua. Jurek, txapelketa guztian, inglesaren kontra juañ zan, Northon lenenguan eta Norris. Woaltik ere oso txapelketa ona in zaban; txapelketa asieran Norris juañ zan lenengua; baña bere urtiak azkenean ezin zuen laga lenengua sartzen. Eta laga zion puestua bere errikuari Northon, eta lenengua atera zaban.

Eta geyago esan gabe eta urrengo arte.

**AZPIAZU'tar XABIER, 13 urte**

(431)

**ELGOIBAR'tik.** — Juan zan igandean egualdi onekin juañ giñan Donostira. Goizian regatak ikusi gendun, eta oso politak izan ziran; eta irabazi zaban Oriok. Gero Kontxan pizka bat pasiañtu gendun eguzkia artuaz.

Arratsaldean juañ giñan Goienetxe'ra, nere anaya ikustera, eta oso ondo eta oso pozik. Etxera etortzeko inbirixa barik dago, eta Goienetxe'ko etxia ere ikusi gendun. Goienetxe ikusirik, etxera etorri giñan, egun eder bat igaro ta gero. Eta besterik gabe, agur eta urrengo arte.

**AZPIAZU XABIER**

(432)

**ELGOIBAR.** — Garizuma bukatu da, eta badator udaberria. Zelayak asi dira lora politekin apaintzen, eta txoriak beste abesti politekin baztarrak alaitzen. Gogo aundia dakat udia etortzeko, eta bakazioak artuaz mendira bazkariakin, eta egun zoriontsuak pasatzen degu bertako aize ederrak artuaz. Juan zan igandean txirrindulari asko ikusi gendun, eta oso polita izan zan, ta ezin ezautu izan ziran, bada, gu konturatu ordurako, aurrera zijoazen.

**AZPIAZU'tar XABIER, 13 urte**

(433)

**ELGOIBAR'tik.** — Bukatu zaizkigu Gabonetako bakasioak. Lenengo egu-

nak txarrak egin arren, onak ere izan ditugu jolasteko. Jayetan oso dotore eon dira eskaparatiak turroez eta beste gauza gozo askokin. Kolejioko eta «Acción Católica»'ko taldeak, abesti eta dantza ederrekin alaitu zituzten Elgoibar'ko kaleak. Baita ere diru asko bildu gaixo ta beartsuentzat. Txalo bero bat guztientzat. Elgoibar'ko ostikolariak gogor egin dute azkenengo bi jokaldietan, batezere Bergara'n irabazita. Aupa, mutillak!, aurrera orrelaxe!

**AZPIAZU'tar XABIER, 13 urte**

(434)

**ELGOIBAR'tik.** — III onen 6'an Elgoibartarrak jokatu zuten Iruni'en Real Union'en kontra; banan gelditu ziran, eta gu pozik punto bakar orrekin. Datorren igandean jokatuko dute Billafranka'ren kontra, ta uste det etxe-koak irabaziko dutela. Billafranka ezta ekipo erreza irabazteko, beti ondo jokatatu izen du Lerun'en Billafranka da zarrenetako bat Elgoibarrekin irugarren taldian, eta partidu asko jokatatu dabena euren artian, eta oso ondo eza gutzen dia elkar.

Eta geyago esan barik agur eta urrengo arte.

**AZPIAZU XABIER, 13 urte**

(435)

**ELGOIBAR'tik.** — Egun baten joan giñan san Pedro'ra Euskal-Ikastolako lagun guziekin, eta nik igaro dedan egunik ederrena an igaro genduañ. Eun da berrogei ume inguru ba giñan, eta aurrera Meza entzun ondoren. Aurrezku, Dantza eta jolas politak ikusi genuzen. Ikusi bakarrik ez jokatatu ere bai: an ibilli giñan itxulapiku apurtzen, goxokiak arrapatzen eta abar. Umientzako botatzen zituzten goxokiak; baña uste dot gure guraso geienak ere an ibilli zirala goxoki edo karameluak arrapatu ezin da. Dana dala, egun ederra igaro ta eguzkia ohea artuta, etorri giñan etxera. Berriz ere zai gaude



noiz izango ote degun beste alako jai-aldi bat.

**BIBAO'tar ALIZIA**

(436)

**ELGOIBAR'tik.** — Egun baten nere lagunekin joan nintzan mendira, ta oso ondo ibilli giñan. Merienda ere eruan genun, eta pillota ere bai jolasean ibiltzeko. Baña pillota sasira juazi zitzaigun. Guk billatu ezin, da amonari deitu giñon; baña arek ere ez billatu. Amonak errieta egin zion pillota sasira bota zuenari. Gero etxera etorri giñan.

**DIAZ'tar M. JOXE**

(437)

**ELGOIBAR'tik.** — Esatera nijoa nik zelan daukaten izena eta zenbat urte eta nun bizi naizen.

Nik amabi urte ditut eta edurne dot izena eta Elgoibar'en bizi naiz, Santa Ana kalean nere anaiak Luis dauka izena eta ni baño urte bat gazteagoa da eta bera be ikastolan dabil.

Beste egun batean geiago idatziko det.

**MIREN EDURNE**

(438)

**ELGOIBAR.** — Emen gera berriro ere euskaldun danen lagun; gaur idatzi nai nuke zerbait Arratiko irrikizkiñaren gaiñean euskal-soñu ederrak aditzen ditugu bai txistusofñu eta abesti goxoak. Zorion bero bero bat ematen diot gure apaiz Pedro jaunari eta baita ere segi dagokiola aurrera ikasi dezagun gure izkuntza zoragarria.

**ELUSTONDO'tar IÑAKI, bederatzl urte**

(439)

**ELGOIBAR.** — Juan dan Abenduan jai polita batzuek euki ditugu nere erri onetan. Egun zoragarri bat Odeon Antzokian eta beste egun zoragarri bat «Ongarri»'ko inagurazioan ospatuaz erriko aurrekulari eta zortziko-

lariak, baita ere erriko bestsolariak. Beste egun on bat euki genduan Gabon egunean: kalez kale ibilli nintzan abestutzen Jesus Aurtxoaren izenean, eta biltzen gendun dirua munduko misionetarako izenean. Merienda eder bat ein genduan beste egun baten beraren izenean: eta urrengo arte.

**ELUSTONDO'tar IÑAKI 9 urte**

(440)

**ELGOIBAR.** — Udia pasa da; etorri zaigu negua. Nere lagunak jun zaizkan zinera. Udan oso ongi igarotzen ditut jayak aitarekin; igotzen ditut mendiak. Sari bat ere badet irabazia amabost mendikoa. Nere aita oso mendizalea da, eta neri ere asko gustatzen zaida. Juan dan dagonillan ogei ta batean juan giñan etxeko danok Urkiola'ra bederatzuurren bat egitera San Antonio'ri, eta an igaro nitun egun zoragarriak, eta zorutzen nago allegandain datorren udaberria.

**ELUSTONDO'tar MIREN KARMELE, 12 urte**

(441)

**ELGOIBAR.** — Astera nua pizka-bat idazten zorionak emanaz **UMEEN DEIA** au antolatzen dituen nagusieri. Nik sekula baño gogo geyago det jarraitzeko gure euskeraren alde lan egiteko. Juan dan abenduaren seian Elgoibar'ko «Odeón» Antzoki'an euki genduan jai alai bat, eta an erakutsi zigun Aita Billasante ditzaion Franziskano batek Euskeraren sustraiak: orain arte nik ez nekian ain izkuntza zarra edo entzutekoa zanik. Gañera ere izan zian Dantza alaiak, abesti gozoak da Bizkai-ko Bertsolariak. Orain bukatzera noya. Geiago idatziko nuke, baño luzetzera dijoa, da urrengo arte.

**MIREN KARMELE ELUSTONDO, 12 urte**

(442)

**ELGOIBAR'tik.** — Nik Euskeraz itzegiten ondo xamar dakit; idazten edo eskribitzen oso gutxi. Pasa dan urtian



ikastolan asi zaigu pizka bat erakusten monjatxo batek. Ein zaigu gaxotu, ta denbora asko da ezin dala osatu. Barru barrutik eskatzen dizuet euskaldun danori erregututzeko gure Jaunari oitutz banakin monjatxo ori osatu daigun: eta ikasi daigun beste pizkatxo bat.

**ELUSTONDO'tar MIREN KARMELE, 12 urtekin**

(443)

**ELGOIBAR.** — Berrero ere astera nua pizka bat idazten nere bizitzako kontu batzuek esanaz. Jairik geyenetan Meza entzun, eta gero juaten gera mendira, ta oso ederki igarotzen ditugu jayak. Astegunean berriz kolegio edo ikastetxera joaten naiz, Clarisa monjatxoarengana; eta onek oso onak dira. Pena aundi bat daukat, Euskeraz erakusten ziguna gaxo dago ta. Nik gure Jaun goikoari eskatzen diot laister osatu dedilla, eta orrela berak erakutsiko dizkigu euskeraren kontu bikañak. Onekin bukatzera nua. Agur bero batekin, eta urrengo arte.

**ELUSTONDO'tar MIRE NKARMELE, 13 urte**

(444)

**ELGOIBAR.** — Orain karta txiki bat itxea nua esaten oso ondo jolasten naitzela neure laguntxuekin. Oso pozik noa. Erregietako eztaikitx ezer botako dien eskolarako. Gauza batzuk eskatuta daukaz, da usten det zeozer allatuko dala. Gabon aratxaldean ebilli ziran kantuz nere tio ta beste lagun asko. Gizon arpegi beltz bat artuta burdi baten Orensero zala esan zidaten. Asko kosta zaten entenditxia zer esan nai zuan. Amaitxu zat zer esanak. Agur, urrengo arte.

**ETXEBERRIE'tar BELEN, 8 urte**

(445)

**ELGOIBAR'tik.** — Nere lagun Eskarne estimatua: Ainbeste denboran egon naiz, nik egindako kartian erantzunaren zai; baño nerekin nola aztu zeran, berriz ere nai nuke zurekin lagun

izatia. Badakit daukazula aizpatxo bat oso polita, da arekin denbora asko galduko dezula amatxori laguntzen.

Lenguan izan giñan eskursioan Santurze'n, da ibilli giñan oso ondo zubi aldekoan, eta pasatu giñan oso ondo zubi aldekoan, eta pasatu giñan konaturatu gabe, eta ikusi genuan sor Natividad, eta oso guapia dago; asko gogoratzen da Elgoibar'ko umiekin. Bueltan etorri giñan Eibar'rera eta ibilli giñan txinbilin-txanbalan edo tresna orretan oso ederki. Gaur ez naiz gogoratzen geyo. Lagatzen zaitut nere agurrik beroenakin.

**ETXEBERRIA BELEN, 9 urte**

(446)

**ELGOIBAR'tik.** — Lenguan ein naban karta bat; oin eitxea nua, beste bat eman zialako tarjeta bat polita. Askokostatzen jat euskeraz eskribetzia; baña berriz ere oso pozik noa eitera.

Kopin bat ekarri zian tiak. soñeko bat eta zapatak eta txapel bat, eta. Agur, urrengo arte.

**ETXEBERRIA BELEN, 8 urte**

(447)

**ELGOIBAR'tik.** — Gaur ez dago eskolarik, da pentsau det eskribitzea aitari poza emateko, ta gañera bestelaz ez dit emango pagarik umien teatrarra juateko lenguan bezela. Agur, urrengo arte.

**ETXEBERRIA ROSA, 7 urte**

(448)

**ELGOIBAR'tik.** — Aurtengo Gabonetan oso ondo igaro ditugu; pozik egoten naiz beti orrek etortzeko, apalondoan kartetan ibiltzeko. Ta Gabon goizean ere oso pozik ibilli nintzan mutil txikiekin Jesus Aurtxoa artuta zebiltzalako.

Gero OLENTZERO'rekin neikua barre egin nuen. Lenengo egon nintzan gizona zalakoan; baño gero esan zidaten serrautzekkoa, ta siñistu ezinda egon nintzan.



Erregiak ere oso ondo portau dira: eskatutako danak eta zeozer geiago bota zidaten. Oso pozik nago. Agur!

**ETXEBERRIA ROSA MARI**

(449)

**ELGOIBAR.** — Gabonak oso ondo pasatzen nao, da ikusi ditut pospoliñak oso politak Jesus umiak. Orain oso gustora nao Errege egunerako eztakit zer izango dan ondo portatzen ba naiz; baietz ustean dot. Ezin dot geyago asmatu konturik.

**ETXEBERRIA'tar ROSA MARI, 7 urte**

(450)

**ELGOIBAR'tik.** — Nik euskeraz itzegiten poliki badakit. Jaungoikoari eskerrak, guraso on onak eman dizkidazelako. Maite dute Jaungoikoa eta euskera, ta maite naute ni. Eta maite ditut nere aitaxo ta amatxo. Abesten ere badakit:

Gabonak dira eta — alaitu gaitezen.  
Jesus Aurtxoa jaio — dalako Beleen.

**GABILONDO'tar ARRATE, 7 urte**

(451)

**ELGOIBAR'tik.** — Gure amamak esaten digu guk diru asko gastatzen degula, berak errial batekin domeketan juaten zala Ermutik Berriz'era, monje-tan antzerki ta komedia polita ikusi, ta etxeratu arratsalde ona igaro ondoren oiñezian. Guk, berriz, beti zinera-ko durua, txikletarako pezeta bat, ta ola amar pezetaraño. Berak urte guzian be ez zuala gastatzen orrenbeste diru, ta esaten digu dirua gordetzen ikasteko. Agur!

**GABILONDO'tar ARRATE**

(452)

**ELGOIBAR'tik.** — Sekula ez det ikusi gaur baño apañago jantzita gure Elgoibar'ko erri maitea. San Anton bezpera da gaur, eta dana txuri txuri

jantzita dago: zerua dirudi. Gaur ikastetxean mojatxuak esan digu elurra-  
ren txuritasun orrek gure biotzxo-  
en garbitasuna esan nai duela; eta peka-  
tua egiten degunian, gure anima ika-  
tza bezela beltzituta geldizten dala, ta  
ori ez degula iñoiz ere egin bear.

**GABILONDO MALLABARRENA'tar IZIAM  
7 urte**

(453)

**ELGOIBAR.** — Gure mojak oso onak dira, da guzien Ama, Ama Agurtxane da. Ikastetxean euskaldun - dantzak ikasten ari gera Zumayako neska batekin. Amaitu da Garizumia, eta Pasko egunean prozesiño ederra egon zan. Manu eta Josu monagillo jantzita juan ziran, eta lagun asko jun zan prozesiño-  
ren atzetik. Datorren igandean Elgoibarko umiak Jaunartze nagusia daukate. Mari Juli nere lengusiñak ere egin bear du. Zorionak! Jaungoikoak nai badu, datorren urtean nik egingo det. Bai pozik nagola! Egun batzuk barru lorraillean sartzen gera. Bai ille polita Ama Birjiña goratzeko.

**GARZIA ta KONDE'tar MIREN ESKARNE**

(454)

**ELGOIBAR.** — Ni naiz neska bat 9 urtekoa, da kartatxu bat egin dot. Nik etxian berba egiten dot euskeraz; baño kalera irten naiz, da lagunak erde-  
raz egiten dik. Ni Santa Klara ikastolan nabil, da ikasten dot asko, biarra-  
-etxedat ama Agurtzanekin da ikaska-  
ya ama Eukaristiakin. Biar guaz Er-  
mura, aitona da amana jayo ziran txo-  
ko politera, an diran jai politak ikus-  
tera, neure iru aizpatxokin. Beste bat arte, Jaungoikoak nai badu.

**GARZIA ta KONDE'tar MIREN ENKARNE**

(455)

**ELGOIBAR'tik.** — Egun batian zan sastresillo bat Plasentzia'kua, eta aiiñ ona zan, zerura juan zala il zanian. Lurrean bizi izan zanean beti euki zuan otz asko.



Bein batian ikusi zaban leio batetik Purgatorixua, eta San Pedrori eskatu zion araxe joatea otza zeukalako. San Pedrok laga zion ta ara jua zan gure Plasentxia'taria. Baña an ere otza zeukala, eta Karmengo Amari esan zion inpernura nai zabela joan. Baietz joateko esan zion Ama Birjiñak. Inpernuko atia jo-ta, Satanek iriki zion galdrada aundia. Alako baten, gogoratu zan San Pedro, ta joan zan Purgatorio'ra, eta an esan zioten inpernuan zegola. Inpernuko atian galdetu zuan, eta Satanak, gezurtero aundia nola dan, esan zion an etzegoala Plasentxia'tarrik. Onela baten entzun zituan ondorengo itz auek:

—Itxi atia bixkor; korirante aundixa dago ta.

**GARCIA ta KONDE ESKARNE**

(456)

ELGOIBAR da neretzat Gipuzkoa guztian erririk politena. Elgoibar'en daukaguz eliz nagusia ederra, kanpantorrria apaña, mendiak aundiak eta gizonak jatorrak: Artazo pelotaria ta Alkorta txerridunaren semea luzeenak. Artazok sukalde goian dauden txisturrak artzeko sekula silla gañera igan bearririk zuen. Txerridunaren semeak baratzeko fruta guztiak eskallara gabe biltzen oi ditu. Orra nolado bentajak dituzten babarruna gogotik asko jan da azitzen diranak.

**GARZIA KONDE'tar MIREN ESKARNE, 9 urte**

(457)

ELGOIBAR'tik. — Irakasleak agindu digun bezela Elgoibar zer den pixka bat agertzera noa. Elgoibar'ko erriak gaurko egunean gutxi gora-bera amalau bat milla bizilagun izango ditu.

Erdi-erdiñ dauka eliza nagusia, San Bartolome bere zaindari dala, baita bigarren zaindari bezela San Anton ere ospatzen degu ta Trinitade ere bai.

Eliz-nagusi aurrean Euskal Oituren Enparantza, Udal-etxea eta pelota-tokia ta beste aldera umeen jolastokia dauka; baditu beste bi elizatxo, bata Santa

Klara ta bestea Milagrosarena; bere geñean Errukietxea duala.

An inguruan ere bada beste jolastoki bat. Kalerik nagusienak San Bartolome ta San Franzisko ditu eta bien erdian barazki enparantza arraintegiekin.

Beste iru antzoki ere baditu, baita ere lantegi edo fabrika asko ere.

Bost bat ikastola gazteleran eta beste euskal-ikastola ere bai. Ta azkenik enparantza eder bat entzute aundiko gizon izenarekin —Aita Agirre— ta agertu bear dut neretzako jolastokirik ederrena ori dala.

**GARITAGOITIA'tar EDURNE**

(458)

ELGOIBAR'tik. — Aspaldi ontan nola ezdoten idatzi euskeraz gaur gogoratu zait sayo bat egitea idatziaz egunego lanak.

Goizean jaiki, ta lenbiziko lana otoitz aldiat egin gero garbitu. Gero orraztu, eta gero gozaldtu ta amari errekuak egin. Gero irakasliak agindutako lanak egin ta ikasi. Denbora sobratzen bazait, jolaz aldi bat egiten dot, ta gero balkaltzera juten naiz.

Ordubietan ikastolara juaten naiz zortzirak arte, ta euskerazko ikastola dagonian, zazpi ta erdietan ikastolara zortzi ta erdiak arte.

Andik eterdakuan etxera apaltzera, ta gero idatzalde bat egin eta lotara. Ola bukatzen det eguneko lantegia.

**EDURNE GARITAGOITIA, 12 urte**

(459)

ELGOIBAR'tik. — Nere irakasleak egindutako eginkizuna betetzera nua, esanez aurtengo jai andiak nola igaro diduten. Artu ta bereala Zarautzera jua nintzan; an igaro ditut illabete ta erdi, a egunero ondartzera joanaz oso pozik ibilli naiz; orrez gañera Zarautzen dagona gauza pozgarria bertako jenda tartian itzik eztala aditzen gazteleran, ta an egon naizen bitartean ikusi ditut beinere ikusi ezitudan mo-



duko gauza ikusgarriak Euskaljayak. Goizean-goiz ango txanbolin, txistu, soñu, irrintzi eta abar. Gero dantza sariketak, gurdi edo karroza sariketak lendabiziko saria atera zuan maitasunezko iturriak, arkaitz bat bere iturrikin neska ta mutilla. Maritxu ta Bartolo kantatzen; ura gauza pollita benetan. Ta arratzaldean kalejira San Pelayora; bein ere eznuan ikusi ainbeste ume, andra ta gizon danak euskal jantzita. «Agur, jauna» abeztuaz bukatu zan. Geyako luzatu gabe onekin bukatzen det. Agur!

GARITAGOITIA'tar EDURNE

(460)

ELGOIBAR'tik. — **Pasau dira baka-siuak.** Astelenian asi zan euskerazko eskolia, eta danok jun giñan pozik. Udan asko jolastu gera Bilbo'ko lagun batzuekin; oso euskal jatorrak ziran: Imanol, Izazkun, Yon, Joseba, Josu eta Xabier'ekin.

ITZIAR

(461)

ELGOIBAR. — Eztakit ondo egingo detan; baña asi naiz ondo ikasten, ba gure aitak askotan esan arren, gure amak ez digu egiten euskeraz. Orain agindu digu beti egingo dabela, da nik ere aleginduko naiz euskeraz ikasten.

LARIZ'tar RUFINO, 11 urtekoa

(462)

ELGOIBAR'tik. — San Pedro egunean Ikastetxean jai berezi bat ospatu genduan. Nai zuenak sartu, asko zegon eta bai ikusmira bikaña barruan, kursoan egindako lanak ikusten.

Jende asko ibilli zan goiz ta arratsalde, eta oso pozik irten ziran, datorren urte arte esanaz. Antzerki bat ere euki genduan eta txalo pranko izan zan.

Urrengo arte euskal lagun guztioi.

LARRAÑAGA'tar GOTZONE'k

(463)

ELGOIBAR'tik. — Guk dakagu olo-etxe txiki polit bat, eta antxe dauka-

guz olo batzuk. Auek egiten ditue arraultza, eta nik jaten ditut egunero arraultza freskuak. Ikastetxera oso pozik juaten naiz: mojatxuak oso alaiak dira, eta asko ikasten degu. Euskeraz ere erakusten digute. Naikua det: agur!

LEYARISTI' ta AZPIAZU'tar MIREN KARMELE,  
7 urte

(464)

ELGOIBAR'tik. — Bein erri txiki baten bizi zan mutil koxkor bat gaizto xamarra; ta gañera pixkat tartamutua zan. Egun baten bere amak esan zion illuntzian errozariora elizara joateko, eta mutillak baietz. Gero etxera juan zan eta amari gezurra esan. Elizara juan bearrean, kalean jolasean ibilli lagunekin, eta amak galdetu zion:

—Nun izan zera?

Mutillak erantzun zion:

—Eeerrosarioko kakakapillan.

LOYOLA'tar ANTONIO

(465)

ELGOIBAR'tik. — Nere iseko maitea: Gu, aita eta ama eta senidi guztiak oso ondo gaude. Jaunak lagun, datorren igandean goaz Arantzazura, eta goaz pozik bere ofietan jartzera; nik danoatik otoitz bero bat egingo det. Agur, beste bat arte.

MAITE, 7 urte

(466)

ELGOIBAR'tik. — Nere lagun maiteak: Gaur ospatu degu nere laguntxo Margaritaren urte betetzea. Pastel goxoak janaz, nik goizian goiz eman diodaz **zorionak** tarjeta polita baten bitartez eta erregalo polit bat egiñez. Nik asko maite det nere laguntxo ori, eta ikastolara juaten. Andik ateratzen danian, egualdi txarra baldin bada, elkarrekin jolazten degu kopiñ eta gauzotxuekin sukaldetxoan.

Geyago ezer gabe beste bat arte. Zuen lagun.

MARIA KARMEN, 8 urte



(467)

ELGOIBAR'tik. — Nere lagun maitea: Asko alegrauko nintzake karta au artzen dezunian ondo egotea; ni ondo, Jaunari eskerrak. Orain esan bear dizut neure kontua.

Ni goizean goiz jeikitzen naiz zortziretan, eta gero ikastolako lezioak errepasatu, eta gero ikastolara joaten naiz. Oin oso pozik nabil, nere maistra oso ona da. Eta zu ze moduz zabiltz? Nere ustez oso pozik egongo zerala, zergatik jakin dizkiat kontu pollitak, eta asko pozutzen naiz, eta segitu olaxe urte askuan. Agur, nere maitea.

MARIA FRANTZISKA

(468)

ELGOIBAR'tik. — Nere osaba maitea; Aspaldi ontan ez dizut ezer idatzita gaur zer edo zer esatera noa.

Eztaikit gogoratuko zeran nola esan ninzun ikastola berrian asi bear gifeila, ba izango dira illabete batzuk asi gifeila. Ni oso pozik noa; ogei ume bezela juten gera; oin len baño urreago daukagu. Joan dan illean 16'garrean, joan gifen ikastolakuekin Debara; jai aundia egin zan, erri askotakak jun ziran, neska batzuk **aurreskua** egin zeben, beste batzuk abestu, tanborradia ere egin zen: eguna oso ondo pasau gendun.

Erderazko ikastolatik ere egin degu beste eskursio bat Bilbao aldera; Gernikara ere juan gifen egualdi txarrikin, baña gu pozik. Ille ontan, 14'an, badaukagu beste eskursio bat San Pedrorra; oso pozik nago, mendia ere asko gustatzen zaitelako.

Agur ta urrengo arte zure illoba.

MARIA ISABEL'ek

(469)

ELGOIBAR'tik. — Lengo zarrak esaten dute, aspaldi bizi zala gizandi bat Zegama'ko mendian. Begi bat bakarra zeukan eta bere jana abereak eta gizonak ziran.

Egun batean, gizandi arrek bi mutil arrapatu zituan eta mendian zeukan etxera eaman zituan. Bat gizena zego-lago erre egin zuan eta gero jan; bestia argala zan, eta erastun biribilla ipiñi zion. Erastun ura ezin kendu zun, eta gañera esaten zeban beti: «Emen nago!». «Emen nago!».

Egun batean gizandi lotan zegola, mutillak kandela bat artu zeban, piztuta, eta begi aurretik... Gero ezin zeban ikusi; gizandia asarretu zan eta segika asi zitzaion mutillaren atzetik erastunak abotsa entzuten zeban aldera. Mutilla nekatu egin zan korrika egiten, eta nola ezin zeban erastuna kendu gauza bat pensatu zeban; atzamarra ebakitzea. Ala ebaki zeban eta potzu batera bota zeban; erastunak segitzen zeban esaten: «Emen nago!». «Emen nago!». Gizandiak nola ori entzuten oi zeban, eta segitu egin zeban aurrera ta potzura erori ta ito egin zan.

Agur, urrengo arte.

MARIA ISABEL

(470)

ELGOIBAR'tik. — Karta txiki bat egi-tera noa, eta izan dedilla atsegingarria. Itz batekin bukatu nai det; urrengo astean juango naiz Donostira, itz egingo degu alkarrekin. Agur urrengo arte.

MARTINEZ'tar MIGEL EDURNE

(471)

ELGOIBAR'tik. — Erri txiki baten ume txiki bat joaten zan beti eskalara: da urtetzen zanian andik, etxera. Eta amak egindu zion etxeko erreka bat egiteko; baña Katalin'ek ez zuan nai errekaurik egin. Amak eman zion jipoe aundi bat, eta Katalin negar eta negar egon zan. Ama jun zan errekauekartzera. Katalin jun zan kalera, eta artu arri aundi bat. Eta jun etxera ama baño lenago, eta lapikora bota zuan. Eta amak, etorri zanean, ikusi zuan arria lapikoan, eta onela esan zion:

—Ola! Katalin; zertarako bota dezu lapikora arria?



Katalin'ek erantzun zion:

—Orain joan oera apaldu gabe, ni jo nazulako.

Eta amak orduan beste jipoe aundi bat eman zion. Bai merezi ere.

**MUGERZA M. ISABEL**

(472)

**ELGOIBAR'tik. — ESNE BILLA.**

—Emango al didazu «kilo» bat esne?

—Esnea ezta pizkatzen; esnea neurritu egiten da.

—Orduan ekatzu «metro» bat...

Eta orain bukatzera nua. Agur, eta beste bat arte.

**MUXIKA ta LARREATEGI'tar AMAYA, 7 urte**

(473)

**ELGOIBAR. —** Gauzak ondo ikaste-ko esaten dabe askotan eifi bear dirala. Baña nik ere Euskeraz idazten ikasteko berriz ere len bezela zeozer egitera nua. Esango dizuet Erregeak zer gauza ipiñi die zapatetan: zapatillak elizara juateko, mantilla eta pafuelua. Basarritan gora ibiltzen naiz. Baita ere oerako kamisoia eder gañera epel-epel egoteko. Eta aitzuta nenguan diru pizkat ere bai.

**MUXIKA ta LARREATEGI'tar AMAYA, 8 urte**

(474)

**ELGOIBAR'tik. —** Emen naukazu berriro idazten, zeozer esateko. Egualdi onak asi dira. Ni oso pozik egun batzuetan; baño aurten ez du egin kalean, mendian bai. Kalean egitea nai izaten botatzen ibilli.

Udaberri oso polita izaten da, lorak azaltzendira eta egualdi onak asten dira. Udaberiran mendira joaten naiz oso pozik. San Jose egunean Arratera noa txirindulariak ikustera.

Larunbatean PAN PIN ekarri zaigun eta irakurtzen asi ninzanean, nun ikusten detan nere izena eta beste anai-arrebarena, irurok elgoibartarrak. Beste biak dira: Asier ta Nekane Etxeberria.

**MUJIKATAR AMAIA**

(475)

**ELGOIBAR'tik. —** Euskaldun malteak:

Astera noa. Ejerzizio auker egiten ditugunak 12 urtetik 16 urtera ditugu, Apaiz batek ematen dizkigu eta oso ederki egiten du: ni beintzat oso gustora nago.

Emen naukazu berriro idazten, zeozer asateko. Egualdi onak asi dira. Ni oso pozik nago. Neri negua gustatzen zait, elurrakin egun batzuetan; baño aurten ez du egin kalean, mendian bai. Kalean egitea nai izaten botatzen ibilli.

Udaberria oso polita izaten da, lorak azaltzendira eta egualdi onak asten dira. Udaberrian mendira joaten naiz oso pozik. San Jose egunean Arratera noa txirindulariak ikustera.

Larunbatean PAN PIN ekarri zaigun eta irakurtzen asi ninzanean, nun ikusten detan nere izena eta beste anai-arrebarena, irurok elgoibartarrak. Beste biak dira: Asier ta Nekane Etxeberria.

**MUJIKATAR AMAIA**

(476)

Aditu dedanez aurten ere, beste urtetan bezela, izango omen degu euskal-sariketa. Txikientzat ere izango omen da, aundientzat bezela.

Ari gera piska bat gertatzen ikasiaz olerki edo ipuin politak.

Geiago luzatu gabe, agur.

• • •

Ni naiz amairu urteko neska bat. Nere izena da Amaia ta abizena Mujika. San Bartolome kalean bizi naiz; elgoibartarra naiz eta nere ama ere bai, eta nere aita aizarnakoako.

Euskerazko ikastolara joaten naiz eta oso pozik nabil.

Asko ikastolara joaten naiz eta oso pozik nabil.

Asko ikasten degu. Astean bi aldiz joaten naiz, astelenean eta ostegunean. zazpi ta erdietatik zortzi ta erdietara.

• • •

Emen naukazu berriro idazten, esateko zer gauza gustatzen zaidana. Ba



neri geiena gustatzen zaidana da mendia.

Askotan joaten naiz egualdi ona danean. Elgoibarren gauza asko pollitak daude; eliza polita eta parkea ere bai.

**MUXIKA MIREN AMAIA**

(477)

ELGOIBAR'tik. — Nere anai gaztia oso okerra da, eta iru aldiz apurtu dit nere orria zueri bialtzeko asmuakin idatzita naukana, eta ainbeste erneatu nau neure buruakin asarretu naiz, eta kalerara igesi det. Baña nere aitak esan dit beorrek lagunduko diala eta irakurri bada bere bertso batzuek:

»Poztuta nago ikusirik  
»Laister ez tala izango aurrik  
»Gure erri ontakorik  
»Euskeraz mintzatuko ezdonik:

»Eta au izanbear lezakena  
»Gauzarik eta bikañena,  
»Ez badu gure asmorik beroena  
»Errenka geldituko da gure nai ederra».

**MUXIKA'tar ER RAMON, 10 urte**

(478)

ELGOIBAR'tik. — Nere gurasoak euskaldun jatorrak dira, eta nik ere ala nai det izan. Oraingo ontan don Jose sendagillaren loretegiko arrosak baño ere indar aundiagoa artu bear dueña euskerak erri ontan esango nuke. Ume asko asi gera ikastetxean euskeraz ikasten. Gaurko naikoa det. Agur!

**MUXIKA'tar GARBIÑE, 9 urte**

(479)

ELGOIBAR'tik. — Gaur da bigarren go aldiz euskeraz idazten detala... Oso asti gutxi izaten det ikastolan egoten geralako egun guztia, baña aleginduko naiz zerbait egiten. Ni nabil erderaz «Escuela de Formación Profesional» deitzen zayon ikastolan, da oso pozikan nago irakasle oso onak ditugulako. Batzuetan gogor aztintzen gai-

tue; baña zerbait biar ere bai gu zuzen ibiltzeko...

Larunbata arratsaldean jai izaten degu, baña egualdi ona darian, fo-balian egiten degu. Sei ekipo daude ta onela egun batian batzuk da bestian beste batzuk jokutzen degu. Juan dan astian penatxo naban galdu gendulako; baño aurrerakoan irabazi gendun, da amak esan zidan beti ezin laikela irabazi, galtzen ere ikasi egin bear dala, jbaño ori ezta erretza! Orain barkatu guztiok. Bukatzera noa, ba nere asmoa luziago egitea zan, baño lotara joateko ordua da; ta agur, urrengo arte. — Zuen lagun,

**MUXIKA eta LARREATEGI MIKEL AINGERU, 12 urte**

(480)

ELGOIBAR'tik. — **Inbiriya.** — Joxe Pello basai utsa da. Lanetik ere bialdu egin dute, eta berak esango digu zergatik.

—Zer gertatu zaik, Joxe Pello?

—Ba! Zea... kontramaixua...

—Zer izan dezute ba?

Badakizute kontramaixuak zer diran. Beñere ezdute lanik egiten. Eskuak bizkarrean, ara-onera ibilli besterik ezdute egiten.

—Eta zer?

—Inbiriya. Norbait sartzen zanean, ni artzen omen nindun kontramaistruat. Esan bezela: inbiriya, besterik ez, inbiriya!

Politara al da? Urrengoan geiago esandizuet. Agur eta beste bat arte.

**MUXIKA ta LARREATEGI'tar M. ISABEL, 10 urte**

(481)

ELGOIBAR'tik. — Berriz ere emen naiz ni zueri zerbait esatera, negua asi dala eta edurra ere bai egiten dula, eta otza ere bai. Atzo gabean edur asko eñ zeban, gaur goizian jaiki naitzenian joan naiz leyora, eta ikusi dotenian edurra zegoala, poztu naiz eta garbitu naiz eta jantzi eta gero joan naiz eskolara, ta eskolan estufia piztu



degu ta bero-beruak egon gera. Baña gero, errekreora urten degunian, otza egon naiz.

Amak esan dit ez ibiltzeko edurra-kin; bestela gero negar egingo dedala. Baña nik ez det egin berak esandakua, eta gero eskuetako miñez egon naiz. Ori pasatzen da gurasoen esanari kasorik egiten eztanian. Orain agur guztiori.

MUXIKA ta LARREATEGI'tar M.<sup>o</sup> ISABEL,  
10 urte

(482)

ELGOIBAR'tik. — UMEEN DEYA'ko Zuzendari agurgarria: Gaurko nere idaztia izango da eskerrak emateko beorri, **Lorategi Berriak** bidaldu zenduzelako. Azkenengo zozketan neri urten ziran, eta oso atsegingar zait bera irakurtzea. Oraindik ez det guzia irakurri, ez detalako denbora geyegi; baño neguan pozik irakurriko detala.

Beste bat ere oso polita badaukagu: **Xabierto** da bere izena. Eta orrelako liburuak irakurrita, ikasten da ondo euskeraz. Orain bukatzera noa eskerrak emanaz biotz-biotzez.

MUJKA M. I.

(483)

ELGOIBAR'tik: — Gabonetako jaiak oso ondo pasatu ditugu. 19'an bakaziuak eman zizkiguten, eta 8'an amaitu genituan, eta berriz ere ikastolara joaten asi gera. Iru illabete pasatakoan, egiten digute esamiñak, eta orainguan lenbizikoa atera det. Orregatik danok oso pozikan gaude, eta Erregen egunian gauza asko izan ditut. Aurrera ere aleginduko naiz ikasten nere guraso mai-teak poztu ditezen. — Igandean nere arrebaren eguna da, ta oso pozikan gaude: amaika urte egiten ditu, eta erregalo bat egin bearko diot. — Orain bukatzera noa, eskolara joan bear det da.

MUXIKA ta LARREATI'tar MIKEL AINGERU,  
12 urte

(484)

ELGOIBAR'tik. — Elgoibar mendiz inguratutako erri bat da. Eleiza nagusi ederra dauka, kanpaitorre batekin. Eleiza plaza aundian dago eta bertan arkitzen dira ere Aiuntamentua eta Frontoi arrizkua. Beste bi eleizatxo ere badira, eta danera bedratzi apaiz, lau mediku eta iru botika denda. Bi zine eta futboleko kanpo edo zelai itxi bat.

Erri ontan zear dijoa ibai bat: Deba du izena. Beraren gañean iru zubi. Lantoki edo Fabrika asko dago emen; baña batezere burni eta galtzairu fabrikak, ogetamarretik gora. Fabriketarako opiziuak ikasteko eskola bat dago. Beste gauzak erakusteko neska-mutillari erriko eskolak ere badira. Monjak bi eskola dauzke neskaentzat bakarrik, eta prailleak mutillentzako Kolejiua. Baña jatorrena, euskerazko eskola. Irurogei mutil inguru gabiltza, eta neska beste ainbeste gutxi gora bera. Gure eskolan ogetabost inguru gera eta erakusten digu Larrañaga'tar Jesus'ek. Astian bi aldiz juten gera; astelenetan eta euenetan zazpiretatik zortziretara, otoiitz batzuk esan, abestu eta euskeraz asko itzegin.

Euskeraz ikasteko ez digu gramatikarik ematen, eta ezta erderatik euskerara eraman ere. Dana euskeraz itzegin, ipuitxuak irakurri egiñaz bertako eskolako batzuk eindako liburu batekin.

TXOMIN MUJKA

(Elgoibar'en 120 mutiko ta neskato pozpozik jotzen dira euskerazko eskoletara, euskera ikastera. Ba dakigu, Elgoibar'en gutxienez 119 mutiko ta neskato gipuzkoar badirala.)

(485)

ELGOIBAR'tik. — **Txantxagorriak ta Txepetxa.** — Gaurko eiztariak dana dute libre. Lengoak esaten dutenez oso debekatua omen zeukaten txori oiek biak iltzea. ¿Ba al dakizue zergatik?

Antzifiñako denporetan Ama Birjiñari begian zakar bat sartu omen zitzaion, eta ifork ezin atera gaba zalako. Ori jakin zutenian **Txantxagorriak** eta **Txe-**



**petxak**, bereala joan omen ziran beregana, eta **Txantxagorriak** bere papar gorriakin argi egiñaz, **Txepetxak** zakarra atera.

Orregatik maitatu bear omen ditugu txori oiek biak. Gaur, berriz, **Txantxagorriak** eta **Txepetxak** obe dute eskutuan ibilli, bestela... sustoren bat liteke baten batek ematea.

**NEKANE'k**

(486)

ELGOIBAR'tik. — Ni nabil «Colegio de Santa Clara» deitzen zaion ikastetxean. Oso pozik juten niz, eta asko ikasten det. Guk daukagu txakur aundi bat «eskot» deitzen zaiona. Pozik egoten da igandea irizteko aitatxoarekin mendira juteko; ta erbiak eta txoriak ekartzen dituzte. Kaxuelan pil jal jaritzen ditugu ta oso goxoak egoten dira. Beste anaitxo bat ere badaukat nik: Jose Luis du izena. Maixuen ikastetxera juaten da oso pozik, ta asko erakusten diote. Gero, iluntzean, aurrekua ta euskal-dantzak ikastera. Ni ere pozik jungo nintzake, ba, aurrekua ta euskal-dantzak ikastera gona luze-luzeak jantzita! Agur eta urrengo arte.

**ODRIA ta ALDAZABAL'tar M. LOURDES, 7 urte**

(487)

ELGOIBAR'tik. — Ilbeltza'ren 18'an. 1963'ko urtea.

Orain pentsatu det ipui batzuek jarzea. Nik Euskera gutxi dakit, baño badaukat gogoia ikasteko. Asko gustatzen zait eta pozik joaten naiz euskal ikastolara.

Nik badaukat anai bat eta bere izena Jose Luis da: euskeraz ederki dakit, nik baño obeto. Nik ere ikasiko det. Aitak eta amak ez digute lagatzen erderaz egiten.

Bukatzer a nijua; urrengoan egingo det geiago eta obeago.

Agur eta urrengo arte.

**ODRIA'tar M. LOURDES**

(488)

ELGOIBAR'tik. — Denpora ez det eukitzen asko: ikastolan ere banabil Prailletan zerbait ikasteko asmoetan. Eta Aurrekuan ere banabil, eta esaten dide etxian ai nazela moldatzen ta segitzeko.

Ala asi nitzan nere asmoz, eta esaten zien eztoela ikasiko; baño orain zein pozik daude gure aita ta ama! «Ongarri» aurrean ikusi nifuenian ikaratuta gelditu omen zian; ze pozik bialtzen naute! eta esaten dide etxian, guri erakusten ai diranak pazienza galanta bearko dutela. Onekin bukatzer a nua eta agur urrengo arte!

**ODRIA'tar JOSE LUIS, 9 urte**

(489)

ELGOIBAR'tik. — Nik nai dot ikasi dana euskeraz. Nere amatxok ta nere aitatxok badakite euskeraz, ta nik ere nai dot ikasi dana. Juten naiz ikastera pozik lagunakin.

Nere amatxok ta nere aitatxok lan asko egiten dabe oskiak konpontzen, ta batez ere, takoyak, ta asko saltzen dabe, ta ni juten naiz Kolejiura, ta ikasten det laboriak ta gauza asko; ta nere amatxo ta nere aitatxo pozik daude.

**ORTUETA'tar BEGOÑA, 9 urte**

(490)

ELGOIBAR'tik. — Ni oin nire Ikastolara eta gaur daukagu jokua eta da kina. Ikastolan daukagu maisua, eta izena dauka Felix; oso ona da, erakusten digu leitzen eta eskribitzen.

Oin erosi dau kalifazioa, eta oso ondo egoten gera. Dazka bi seme, bat da neskia, eta dauka izena Nekane, eta bestia da mutilla, eta dauka izena Asier. Eta gero egoten da beste maixua mutillantzako, eta dauka izena Jose. Mutillak daude amar, eta neskak ogei, baño etorriko dire geiago.

Bueno, banoa beste bat arte.

**UNZUETA MAITE**



(491)

ELGOIBAR'tik. — Ni naiz Uriarte neskatilla txikia. Guk daukagu katu txiki bat ollo-tokian: indar aundiak ditu. Bilatzen dituan arratoi guztiak ito egiten ditu. Aatak (patuak) ere badaukaguz: zikiñak dira, baño oso zintzuak dira. Arraultza pillo aundia jartzen digute. Loretegia ere badaukagu, ta nik udaberrian loretxorta politak egiten dituk maian jartzeko. Agur eta beste arte.

URIARTE eta EZENARRO'tar TERESE, 7 urte

(492)

ELGOIBAR'tik. — Oain da lenengo aldiz euskeraz idazten detala, eta emendik aurrera alegingo naiz obeto iteko. Orain esango dizuet abenduan euskeraz konkursoan amabost urtekoan, atera det bigarrena; eta eman dia amabost duro eta liburu bat: Fernando Amezketarra; eta asko politxa da. Agur urrengo arte: betj zuen lagun.

URKIDI M.\* DOLORES, 11 urte

(493)

ELGOIBAR'tik. — **Bein baten** egon zan ume bat oso polita ta oso ona. Berari gustatzen jakon mendira joatea. Baten joan zan mendira, ta agertu zitayon sorgin bat, ta artu zuan izara artian ez eban nai izan arekin joaterik; eta asi zan kurrizkaz. Ta kurrizkak entzun zituanian gizon bat etorri zan, jo zion makilliakin burua apurtu arte, eta orduan lurrian laga zuan. Eta umea bildurrakin etxera jun zan korrika baten, da amari esan zion geiago ez zala joango mendira; da ordutik pozik joango zala ikastolara.

URZELAI M.\* NEKANE

(494)

ELGOIBAR'tik. — **Gogoko tokian al-dapikez.** — Jai bazkalondo batean Joxe Martin'ek Pernandoren etxeko aldaba jo zun eta oyu egin zion:

—Ba al-ator bezperatara, Fernando?

—Ezin, Joxe Martin, ezin —erantzun zion Pernandok—. Bart zapatak konpontzera eraman nizkikan da.

—Orra, ezpa ator Bolianeko taberna natxiak denbora pasa.

—Ago, ago —ekin zion orduan Pernandok—, emaztearen zapatak jantzi ta irekin niak!

Bukatu da ipuia. Agur, eta urrengo arte.

YUDEGO'tar MIREN JOSEBE

(495)

ELGOIBAR'tik. — Nere laguntxo Mendikute'tar Merzeditas: Eztakizu nolako poza artu nuan atzo ikastolatik atxeratu nintzanian, an zeon zuk bialdutako eskutitza, eta bertan esaten zidazun nola datorren igandean zure urte betetze eguna dala, eta joateko txokolate txurruekin artzera. Ba, juango naiz poz pozik, eta jostatuko gera asko. Besterik gabe bukatzera nua; agur eta igandera arte.

ZALETA'tar IRUNE, 7 urte

(496)

ELGOIBAR'tik. — Nere etxekoak eskatzen didatelako idaztera noa lenengo aldiz euskal idazti au, baño lau illera bakarik. Pozez txoraturik nago gure urteroko ibillialdia egiteko. Aurten Ondarrabi aldera.

Utziko ote dit gure irakasleak aurten ibillialdi au egiten? Ondarrabi alde ortan dauzkat osaba-izebak. Ze pozik egongo nintzake aiekin piskabat Ondarrabiko itxaso ondoan.

Orain arte ez det idatzi euskal ikastolan, baño au ondo egin badet ez det utziko geiago. Ipui asko dauzkat eta.

Gaurko naikoa izango da eta uztera noa beste bat arte. Ondarrabiko ipuiak izango ditut urrengo idaztian.

ZABALA'tar ELIZABET

(497)

ELGOIBAR'tik. — **Nere ametza.** — Katu xaguen asmaketa orrek parre aundiak eragin diguz umetxoai, beren lagun artean eta ikastetxean.



Batak minutu bat bear dutela, besteak iru, urrengoak eun. Eta nik prueba bat egitea pentsatu nuen. Ta ara nolako ametza egin dedan gau batean. Bildu nituen erriko katu guztiak ipiñi nituan neure etxeko baratzan; bota nien xagu bana bakoitzari, eta artu nuen erlojua eskuan. Asi ziran jaten.

Iru minutuan jan zituen xaguak. Baño... erdi-erdian gelditu zan katu zar aundi bizar-luze bat xagua jan eziñik. Tira ortik, eta tira emendik, eta eziñ iñola ere puskarik kendu. Ori ikusita, beste katuak orreratu ziran katu zarrarengana xagu jaten laguntzeko asmoz edo... Eta arrapatuko dioten bildurrez, tragatu oso-osorik bere xagua. Gelditu zaio eztarrian; ez atzera eta ez aurrera: ito da ta erori da luze-luze lurrera. Ori ikusita, katu gazte arrosko batek altxa du burua ta dio: Gure danon amona zan katu zar ori: ortzak palta ziztualako il da; ta guri zartzaroan ori gertatu ezdakigun, nik ikasiko det agiñ konpontzen.

Elortza ojalateruari eskatuko diot zinka zati bat agiñ berriak egiteko. Jose Pello ukulluan egingo det lanketa ori larunbata arratsaldetan.

#### ZUAZUBISKAR'tar SORKUNDE

(498)

ELGOIBAR'tik. — Elurte aundia daukagu aurten, eta gure amonak ipuin asko esaten diguz su onduan exerita. Ara emen bat: au egia omen da, gertatua.

Guztiok ezagutzen dezue Elgoibar'en «Karakate» izeneko mendia non dagoen. Mendi orren gallurrean antziñako denboran baserri-etxe bat omen zan, eta aintxe bizi zan famili bat. Negu baten ikaragarrizko elurtia ei zegoan denbora luzean, eta Karakate baserrikoa zearo elurrez estalita, ta iñor ere etzala agertzen kalera, ta otzak eta gosiak illak izango zirala: ta erriko agintari jaunak pentsatu zuten giratalde bat bialtzea Karakatera, ogia ta beste janari batzuegaz.

Ala joan ziran, neke aundiak artuta; iru metroko elurra pala eta atxurragaz

al zan moduan bidea ebakita, iritxi ziran baserrira, ta txerria il eta solomo ederra jaten arkitu omen zituzten Karakate andra-gizonak beren semetxoekin, tan andik aurrera, beti goguan izan ei zuten baserri orretakoak, erriko Agintari jaunak euregatik egin zuen maitasunezko egintza aundia.

#### ZUAZUBISKAR'tar SORKUNDE

(499)

ELGOIBAR'tik. — Oso pozik irakurri ditut nere erriko neska-mutiko txikien idazti politak. Ni ere zuen lagun izan nai nuke. Orain Eguerri-Gabonak laister ditugu, ta Olantxero ere bai, ta Jesus Aurtxoarekin etxez-etxe ibiltzeko. Abesti polit bat ere badakit aitonak erakutxita:

Gabon gaba dogu ta — aupa, Maria  
[Anton!  
Jesusen izenian — Bake ta zorion!  
Osasun daizuela — guztiok etxion,  
Eta beste bat arte — agur eta Gabon!

#### ZUAZUBISKAR SORKUNDE, 9 urte

(500)

ELGOIBAR'tik. — Ni juaten naiz ikastetxera, eta asko ikasten alegintzen naiz; eta andik urten eta gero juaten naiz aurrezkua ikastera; gero apur bat jolasian egin; eta juaten naiz etxera, apaldu, nere otoitzak egin eta lotaritzen naiz.

#### ZUBIAURRE'tar JOSEBA ANDONI, 8 urte

(501)

ELGOIBAR'tik. — Ijitoak elkarrekin. Anton: arbi-lorea ere agertu zaigu ba. —Eta zer?  
—Pazkoak urreratu dirala.  
—A, Mari Martin! Zu beti bat; oraiñ ere bildotxa goguan, e?  
—Bai; beste gauza bat ere.  
—Asko balioko du.  
—Beñepeiñ pazkoakoaren egiñ bear dezu.  
—Eta zuk ez?  
—Biok.



Hose Kethu b

—Zertako? Gu onuzkero biok beti berdiñ izango gera. Erretore jaunak ori ondo daki, eta egizu kontu egiñ degula.

—Eta txartela?

—Ara; zuk dakizkitxu nere pekatuak neronek baño obeki. Esaizkatxu zearo apaizari ta zu ta ni konponduko gera.

—Nereak asko ditut nik, eta zuk eramaitzatzu zureak.

Ni izanagatikan — etxeke nagusia, Alare egingo det — diozun guzia. Alperrik det zuekin — itzaldi luzia, Bada onela beti — galtzen deu auzia.

**ZUBIAURRE'tar PANTZESKA XABIER**

(502)

**ELGOIBAR'tik.** — **Euskal-Ikastola'ren apurrak.** — Euskal-Ikastolak, bere alde-tik, egiten du zerbait gaurko gaztediari euskaltzaletasuna sortu erasten, baño gure lanak bakarrik indarge dira, beren etxeakoak erakusten ez ba diote.

Jakiñean dago mundu guzia, gura-soak duan garrantzia, eta batezere **amarena**, umearen eratorpen edo edukazioan, eta gaurko emakumeak galdu xamarra dute euskaraganako zaletasuna eta baita euskera ere. Nola ikasiko dute ama oyen umeak? Aurreneko urteetan ikasten ez badute, nola ikasiko dute zartzaroan?

Emakume askok arrokeriz esaten dute, nolako ondo dakiten euren semeak erderaz; eta ez dira konturatzen beren auzokoak edo beren etxepekoak ba daudela beste ume batzuek euskeraz ondo eta erderaz beste oyek ainbat edo obeto dakitenak. Izkuntza batek edo euskerak ez du ezer galtzen beste erdera batzuek ikasteko, mezede baizik.

(ELGOIBARRA BATEK IDATZIA).

## ERRENDERI

(503)

**ERRENDERI'tik.** — **Bi letra egitera noa.**— Lau senide gera eta aita ta ama. Ni San Jose Kolejoan nabil. Orain asko

estudiatu biar det. Emendik bi urtera nai nuke ofizina batian kolokatu, aita ta amari laguntzeko.

Nere aita ta ama euskaldunak dira, bañan nik gutxi dakit, baño asko ikasiko det.

**AMIANO'tar M. DOLORES, 13 urte**

(Ikasi nai ba duzu, ikasiko duzu eta gipuzkoar úatorra izango zera.)

(504)

**ERRENDERI'tik.** — Bi letra egitera noa, esanaz ementxen Aita Kaputxinen ondoan bizitzen naizela. Ama Birjiña Fatima'koen artzaitxua naiz, eta illero juaten naiz funtxiyura. Eta nai dut euskeraz ondo ikasi. Beste iru anai ditut, eta ni naiz zarrena. Andikan eskolara juaten naiz, monjetara. Badut izeba bat monja, eta lengusu bat estudian-tea.—Onekin bukatzera noa. Ni naiz

**AMIANO JAUREGI M. DOLORES, 12 urte**

(505)

**ERRENDERI'tik.** — Artu det asmua zerbait agertzeko. Juan dan aspaldi onetan eguraldi guztiz txarra egiten digu benetan. Gure Euskal-errian guzia berde, guztiz polita. Sagarrak ere oso betiak daude; gereziak eldu dira ta bai goxuak. Pozik agertzen naiz sagarrak eltzeko ta asko nola dan ortatik sagardo asko egingo baita.

Ostegunian Korpuz eguna genduan; baña etzan prozesiyorik egin euria ari zalako.

Gaur Zarauz'ko erri politean degu **Basarri'ren** omena, eta Tolosen mutil ta neskatxien batzar billera.

**IZAGIRRE'tar ERRAMUN**

(506)

**ERRENDERI'tik.** — Nere izena Erramun da, eta nere abizena Izagirre. Errenderin jayo naiz eta anai asko gera. Zarrena aita Kaputxinoa, eta bigarrena anai Kaputxinoa, laster Meza santua emango duena. Irugarrena mekanikua, laugarrena estudiante fraile akatxa izandu ba. Bostgarrena ere me-